

BALOREZKO PROPOSAMENA



Balorezko proposamenari dagokionez, gure proiektuak ez du konpetentziarik, izan ere, erabat berria den proiektua da eta momentu honetan gu gara hau fabrikatzen dugun enpresa bakarra. Hasieran, gure proiektua, Astigarragan gauzatuko dugu, herri txiki bat delako, eta hasteko egokiena iruditzen zaigulako.

Gure proiektuak munduan plastiko hondakinek duten eragina murrizten lagunduko luke. Proiektu honekin, jendeak plastikoa errazago birziklatuko luke eta, beraz, plastiko horrek ez luke lurrian amaituko. Gainera, gure bezeroek planetari eta munduari lagunduko liokete eta beraz, bezero horien oerako ere izango den produktua dela iruditzen zaigu; hori ere aldeko beste puntu bat da.

Proiektu honekin perfil guztietako bezeroak lortuko ditugu. Izan ere, zerbitzu honen helburua birziklatzea denez, publiko guztiari zuzenduko zaion proiektua izango da. Gure produktua kontsumituko eta erosiko dutenak, gehienbat, plastikoa birziklatu dezaketen enpresak dira, eta enpresa horiek eta edozein herritar edo eroslek gomenda dezakeen proiektua dela uste dugu. Bezeroen kopurua enpresaren funtzionamenduaren araberakoa izango da, nahiz eta ongi funtzionatuko duela suposatuko dugun. Herritar guztiei interesatzen zaien produktu bat dela esango genuke eta, horren ondorioz, herritar oro bezero bilakatzea espero dugu.



Bezere asko lortuko ditugula ziur gaude, izan ere, produktu honek onurak ekartzen dizkie gure bezeroei, ekonomikoki, baita munduari eta planetari ere. Zati ekonomikoaren aldetik, aurrez lurrera edo zakarrontzira botatzen zituzten produktuengatik beste gauza batzuetan dirua gastatzeko aukera emango diegu, beraz, haintzat irabaziak bakarrik direla iruditzen zaigu.

Balore kuantitatiboari dagokionean, guk fabrikatutako makina horren atal batek, plastikoaren pisua kalkulatzearen funtzioa izango du, eta gero plastiko kantitateran arabera, diru kopuru bat emango diogu plastikoa depositatzen duen pertsona horri.

